

Joanes Arrese Barandiaran

F maila • 3 saria

Kaixo!

Joanes naiz 10 urteko mutiko beasaindarra, eta Alkartasuna Lizeoan ikasten dut 4. mailan. Futboleko jolastea asko gustatzen zait, baina gehien gustatzen zaidana lagunekin jolastea da.

Sari honekin oso gustora nago, eta andereñoak saria irabazi nuela esan zidanean oso pozik jarri nintzen.

Ea nire ipuina gustatzen zaizuen!!



UNIKORNIOEN ERRESUMA

Nire ipuinaren protagonista, Xabier izeneko mutil beasaindar bat da.

Xabierrek egun osoa telebistari begira eta PS4 -arekin jolasten pasatzen zuen, telesail asko gustatzen zitzaizkion baina gehien gustatzen zitzaiona "UNIKORNIOEN ERRESUMA" izeneko telesaila zen, orduak pasatzen zituen telesail hori ikusten.

Egun batean telebista ikusten ari zela bere etxeko argia joan egin zen eta bapatean telebistatik dizdira indartsu bat atera zen, begiak ixtea behartu zion, eta begiak irikitzerakoan bere etxeko salan ez zegoela konturatu zen.

Bere ingurura begiratu eta segituan ezagutu zuen, unikornioen erresuman zegoen!!!

- Kaixoooo!! – esan zion ahots batek.

- AAAHHHH !! – oihu egin zuen Xabierrek

- Barkatu sustoarengatik, ni Muki naiz eta zu?

- Ni Xabier naiz eta galduta nago – erantzun zion Xabierrek.

- Etorri nirekin eta Unikornioen erresuma erakutsiko dizut – esan zion Mukik.

Mukik ez zekien Xabierrek mundo hori oso ondo ezagutzen zuela.

Xabierrek bazekien han bizi ziren unikornio guztiak ez zirela txintxoak, bazegoen unikornio bat oso gaiztoa zena, Iki zuen izena, beste unikornio guztiak gorroto zuten beraiekin oso gaizki portatzen zelako baina ez zekiten zein zen bere asmoa, Xabierrek berriz bai, atal hori ikusita zuen eta bazekien Ikik unikornioen mundua, iluna eta tristea bihurtu nahi zuela, horretarako globo erraldoi batekin eguzkia estali nahi zuen.

Xabierrek Mukiri Ikiren asmoa kontatu zion, eta beste unikornio guztiei abixatzea jun ziren.

Denak elkarrekin globoaren izkutalekua bilatzera joan ziren, Xabierren laguntzarekin seitun aurkitu zuten, globoa erraldoia zen , eta lehertzea ez zan batere erreza baina denak batera beraien adartxoak erabilita azkenean lortu zuten globoa lehertzea.

PUUUUUUUUMMMMMMM!!!!!!!

Horrela Xabierren laguntzarekin Muki eta bere lagunek Unikornioen erresuma salbatzea lortu zuten.

- Eskerrikasko, Xabier! Orain nik lagunduko dizut zure etxera itzultzen – Esan zion Mukik Xabierri.

Mukik kobazulo arraro batetara eraman zuen Xabier, eta horrela esan zion;

- Kobazulo horretara sartzen bazara mirari bat eskatzeko aukera edukiko duzu, etxera itzultzea eskatzen badezu begiak irekitzerakoan zure etxean egongo zara.

- Ados ! – erantzun zion Xabierrek.

Kobazulora sartu behar zenean, kobazuloko sarrera ixten hasi zen, Xabierrek salto haundi bat egin eta bere miraria eskatu zuen ...

Begiak ireki zituenean....

Bere etxeko sofan zegoen telebista aurrean.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan!